

Kultura Auzolanean 2016 planaren ildoak

2016ko urtarrilaren 18a

Kultura Auzolanean 2016 planeko gaiak definitzeko eta gai horiei lehentasuna emateko erabili diren irizpideak honako hauek izan dira:

- **2016an zeharkako gaiak** izan daitezela
- **Administrazio guztiekiko komunak diren gaietan** oinarrituta egon daitezela
 - **2016. urtean zehar egikaritzeko bideragarriak** izan daitezela
- **Prozesuen garapenean eta erakundeen arteko koordinazioaren hobekuntzan jar dezatela ñabardura,** produktuen sorkuntzan baino gehiago



KULTURA AUZOLANEAN 2016: PROPOSAMENEN KONTRASTEAK

1. Emakumeek kulturaren duten presentzia eta parte-hartzea: egoera eta diagnostikoa
2. Sorkuntza eta bitartekotzarako guneak EAEn: egituraketa eta koordinazioa
3. Bibliografia nazionala
4. Ondare ez-materialaren plana

1. EMAKUMEEK KULTURAN DUTEN PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA: EGOERA ETA DIAGNOSTIKOA

Helburu orokorrak	<p>Emakumeen egoera ezagutzea eta diagnostikatzea kulturaren eremuan duten presentziari eta parte-hartzeari dagokienez, hobetzeko eremutzat definitzen diren eremuetan egin daitezkeen esku-hartzeak planteatzeko xedez.</p>
Oinarrizko deskribapena	<p>Proiektua, Emakunderekin koordinatuta garatuko dena, lehenik eta behin egoera- eta diagnostiko-txostena egiteko prozesua diseinatu eta adostean oinarrituko da, honako hauek hartuz oinarrizko elementutzat:</p> <ul style="list-style-type: none">• Ikusmen-arten eta Ikus-entzunezkoen sektoreei lotuta egingo da batez ere.• Emakumeek balio-katearen elementu desberdinetan (jakintza, ikerketa eta prestakuntza; sorkuntza; produkzioa; hedapena, programazioa eta erakusketa; kontsumoa) duten egoera eta parte-hartzea hartuko du kontuan.• Hobekuntzarako eremu gisa identifikatzen diren eremuetarako esku-hartzerako balizko neurrien definizioa hartuko du barnean, eremu eta etapa desberdinetan emakumeen presentzia eta parte-hartzea hobetu eta handitzeko, eta berdintasun-maila handiagoko testuinguruen sorkuntzan laguntzeko.
Espero diren emaitzak	<ul style="list-style-type: none">• Emakumeek Kultura arloan eta bereziki Ikusmen-arten eta Ikus-entzunezkoen sektoreetan duten presentziari eta parte-hartzeari buruzko egoera- eta diagnostiko-txostena.

2. SORKUNTZA ETA BITARTEKOTZARAKO GUNEAk EAEn: EGITURAKETA ETA KOORDINAZIOA

Helburu orokorrak	EAEko sorkuntza eta bitartekotzarako gune publiko nahiz pribatuei buruzko mapa eguneratu bat egitea, guneen esku-hartzerako planteamenduak globalki egituratzeko eta haien artean koordinazio-mekanismoak identifikatu eta garatzeko.
Oinarrizko deskribapena	<p>Proiektua era honetan egituratuko da:</p> <ul style="list-style-type: none">• Gaur egun EAEn dauden sorkuntza eta bitartekotzarako gune publiko nahiz pribatuei buruzko mapa diseinatu, metodologikoki zehaztu eta mapa bera egiteari ekingo zaio.• Mapa honek eragile eta guneen koordinaziorako neurriak barne izango ditu.
Espero diren emaitzak	<ul style="list-style-type: none">• EAEko sorkuntza eta bitartekotzarako guneei buruzko mapa eguneratua, gune eta eragileen koordinazioko proposamenarekin.

3. BIBLIOGRAFIA NAZIONALA

Helburu orokorrak

- Euskal Autonomia Erkidegoan euskaraz edo euskal gaiei buruz hala formatu analogikoan nola digitalean editatutako argitalpen bibliografikoak, musikalak eta ikus-entzunezkoak identifikatzea.
- Era horretan, liburuzainei, eskubide-kudeatzaileei, liburu-saltzaileei, irakasleei, kultura-analistei eta oro har herritarrei zerbitzua ematea euskal kulturarekin lotura zuzenagoa duten kultura-industriek produzitutako kultura-edukiak hedatu, eskuratu eta aztertzeko.

Oinarrizko deskribapena

Bibliografia nazionala lantzeko hainbat iturri aztertuko dira: adituen edo euskal-egileen erregistroa, argitaratzeko lekuak eta editoreak, euskaraz argitaratutako edukiak, euskal gaiei buruz argitaratutako edukiak, Espainiako Liburutegi Nazionalak joan zen mendeko 50eko hamarkadaren amaieratik aurrera kudeatutako lege-gordailua eta Eusko Jaurlaritzak 1990eko Euskal Kultura Ondareari buruzko Legea onartu ondoren kudeatutako lege-gordailua.

Espero diren emaitzak

Hiru emaitza mota espero dira:

- Espainian Lege Gordailua erregulatu zen arteko atzera begirako bibliografia lantzea.
- Bibliografia arrunta lantzea, Lege Gordailu hori erregulatu zenetik aurrera.
- Eduki digitalen bibliografia lantzea, joan zen mendeko laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik aurrera.

4. ONDARE EZ-MATERIALAREN PLANA

Helburu orokorrak

- Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondare ez-material biziaren inbentarioa egitea.
- Euskal kultura-ondare ez-materiala aztertzea eta hedatzea, Euskadiko kultura herrikoiaaren jakintza-iturri gisa.
- Ondare hori duten komunitateei laguntza ematea belaunaldien artean transmititzeko ondare bizi eta ebolutibo gisa.

Oinarrizko deskribapena

Lehenik eta behin, Euskal Herriko kultura-ondare ez-materiala identifikatuko da, bildu beharreko informazioa zehazten duen fitxa baten bitartez eta Euskal Herriko kultura-ondare ez-materialaren adierazpen esanguratsu guztiak kategoriatan eta azpikategoriatan taldekatzeko aukera ematen duen proposamen kontzeptual bat eginez.

Gure kasuan aplikagarriak izan daitezkeen beste esperientzia batzuen konparazio-azterlan bat egingo da, eta aldundiekin, udalekin eta kultura-agenteeekin azterketa-lan bat egingo da lehendik aipatu diren 2. eta 3. helburu orokorrak betetzea ahalbidetzen duen jardun-plan bat egiteko.

Espero diren emaitzak

- Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondare ez-material biziaren inbentarioa egitea.
- Euskal Herriko kultura-ondare ez-materiala babesteko jardun-plan bat egitea.